



"Nicolás Guereñdiain" Irungo Errepublikarrak

Centro Cívico Palmera-Montero, local 4
Leandro Agirretxe, 1 - 20304 Irun
Tel.: 669 075423 - P.K.: 10008
www.asociacionrepublicanairunesa.org
140431@asociacionrepublicanairunesa.org

Irungo Udaleko Alkate-Lehendakari Jaunarentzat

Irun, 2017ko martxo

Irungo alkate jaun agurgarria:

Dakizunez eta gogoratuko duzunez, 2014tik zuregana zuzendu ginen irungo Udaleko ordezkari nagusia zaren aldetik, eta Espainiako II. Errepublikan indarrean zegoen hiru koloreko bandera Udaletxeko balkoian apirilaren 14an, 24 orduz altxatzeko proposamena eginez, 1931n, espainiar estatuan II. Errepublika aldarrikatu zen egunaren omenez.

Hiru urte hauetan gure eskaera gaitzetsia da eta eman den arrazoia izan da ez dela hainbat sentsibilitate mindu nahi.

Iaz, abenduaren 17an, Irungo udalak plaka bat ezarri du Abenida Zubian frankismoak errepresaliatuak izan ziren horien omenez, Hendaiaiko udalak iazko irailean egin zuen bezala, kontuan izanik Hendaiaiko ekitaldi horretan bertaratu zinela gure hiriko ordezkari gisa.

Apirilaren 14an, balkoian bandera jartzeagatik minduta sentitu ahal diren pertsona berberak haserretuko ziren omenaldi horiek zirela eta, baina hori ez da biktimak ahazteko arrazoi nahikoa.

Gure Elkartean uste dugu omenaldiak ez direla egun batean egin eta urtearen gainerako egunetan ahazten den zerbait. Gogoratzeko ez ezik, EGIA, JUSTIZIA eta ERREPARAZIOA, eta gertaera horiek EZ errepikatzea aldarrikatzeko balio dute omenaldiek.

Irundar askok sufritu zuten eta frankismoaren biktima izan ziren apirilaren 14 hartan, hautetsontziez baliatuz lortu ziren eskubide demokratikoak defendatze hutsagatik. Justiziak ez ditu haietako gehienak aintzat hartu horren ondoriozko biktima gisa.

Horregatik, berriro adierazi nahi dizugu egun horretan hiru koloreko bandera altxatuz, demokraziak berekin dakartzan balioak goratzeaz gain, gure arbasoei omenaldia egingo litzaieke gizartea modernizatzearen aldeko apustua egiteagatik, Abenida zubian joan den abenduan egin zen bezala.

Nicolás Guereñdiain Irungo Errepublikarrak
Presidentea
Florentino Zamora